

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4277

1723/2015 EBAZPENA, urriaren 5ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, hautatze-probetarako epaimahaia izendatzeko, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Lehen Mailako Arretako Pediatria Unitateetan duen Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide taldeko Medikuen kategorian pertsonal estatutarioaren egoerara heltzeko.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren maiatzaren 28ko 1135/2015 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-probak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren maiatzaren 28ko 1140/2015 Ebazpenaren bidez, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Lehen Mailako Arretako Pediatria Unitateetan duen Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide taldeko Medikuen kategorian oinarri espezifikoak onartu dira.

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 18. oinarrian zehaztutakoaren arabera, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendari Nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatu behar du.

Adierazitakoagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliatuz, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Lehenago aipatutako kategoriaren prozesuari dagokion Kalifikazio Epaimahaia izendatzea. Epaimahaikideak ebazpen honen I. eranskinean zerrendatzen dira.

Bigarrena.– Ebazpen honek eman den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAr argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu zituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko maiatzaren 28ko 1135/2015 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko helegitea jarri ahalko zaio Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 5a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.

I. ERANSKINA

Epaimahaiburua:

- Titularra: Carlos Sola Sarabia.
- Ordezkoa: Juan Miguel Campayo Pérez.

Lehenengo epaimahaikidea:

- Titularra: Pedro Jesús Gorrotxategi Gorrotxategi.
- Ordezkoa: María Carmen Gómez Gómez.

Bigarren epaimahaikidea:

- Titularra: María Del Coro Elorza Beitia.
- Ordezkoa: Aránzazu Lorena Tajada Zabalbeitia.

Hirugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Susana Esteban López.
- Ordezkoa: Rafael Carlos Bretos Paternain.

Laugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Nere Arostegi Kareaga.
- Ordezkoa: María del Pilar Lafuente Mesanza.

Bosgarren epaimahaikidea:

- Titularra: María del Carmen Ruiz De Larrea Pérez.
- Ordezkoa: Angel Santiago Villate Carrasco.

Seigarren epaimahaikidea:

- Titularra: María Dolores Morato Rodríguez.
- Ordezkoa: Itziar Fernández Respaldiza.

Idazkaria:

- Titularra: Antonio Miguel Rodríguez Álvarez.
- Ordezkoa: Maiteder Mielgo Rubio.